



EAE-KO GAZTE PLANAREN ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERAREN AKTA, Vitoria-Gasteiz, 2004ko abenduaren 15a.

Partaideak:

- Miren Azkarate andrea, Kultura sailburua eta bileraren buru, Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendari Xabier Sánchez Robles jauna duela laguntzaile eta idazkari lanetan.
- Mikel Burzako jauna, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren ordezkaria.
- Clara Izurieta andrea, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren ordezkaria.
- Juan Bautista Mendizabal jauna, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ordezkaria.
- Sonia Samaniego andrea, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkaria (Etxebizitza Sailburuordetza).
- Angel Elías jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (Gizarte Gaietako Sailburuordetza).
- Luis Javier Tellería jauna, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ordezkaria.
- Mikel Legarda jauna, Herrizaingo Sailaren ordezkaria (Segurtasun Sailburuordetza).
- Pedro Zugasti jauna, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkaria.
- Luis M^a Sautu jauna, Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- Jon Iñaki Zarraga jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria.
- José Ignacio Insausti jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria.
- Txuri Aramburu andrea eta Eduardo Urrestarazu jauna, Donostiako Udalaren ordezkariak.
- Alfredo Iturricha jauna, Gasteizko Udalaren ordezkaria.
- Jon Aritz Bengoetxea jauna, Bilboko Udalaren ordezkaria, Ana Aseginolaza andreak lagundurik.
- Joseba Mirena Zorrilla jauna, EUDELen ordezkaria.
- Mikel Torres jauna, EUDELen ordezkaria.
- Alicia Suso andrea, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkaria.
- Gotzon Baraia-Etxaburu jauna eta Helena Ortiz de Lejarazu andrea, Kualitate Lantaldetik.
- Oro Ochoa de Eribe andrea (Eusko Jaurlaritzako Gazteriako burua), Bakarne Zuazua andrea, Fco. Javier Gutiérrez jauna, Jesús A. Pérez Arrospide jauna, Fernando Aguirre jauna eta Agurtzane Iriondo andrea (Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzako teknikariak).

Ezin etorria adierazi dute:

- Gurutz Larrañaga jaunak, Kultura Sailaren ordezkariak.
- Abel Ariznabarreta jaunak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkariak.
- Rafael Cerdán jaunak, Osasun Sailaren ordezkariak.
- Maider Otamendi andreak, EUDELen ordezkariak.
- Arritxu Marañón andreak, Donostiako Udalaren ordezkariak.



10:10ean Xabier Sánchez Zuzendaritza Batzordeko Idazkariak bilerari hasiera eman dio bertaratutakoak agurtu eta gero.

Aurkezpenak egin dira eta, txanda hori amaitu eta gero, Kultura sailburua iritsi da. Agurmen hitz labur batzuen ondoren, gai-zerrendaren lehen gaia lantzeari ekin dio.

1. Aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio.

2004ko ekainaren 23ko aktaren idazketari dagokionez, Kultura sailburuak jakinarazi du postaz bidalitako aktaren zirriborroa aldatu egin dela, Osasun Saileko ordezkariaren parte-hartzeari dagokion zatia, hain zuzen ere. Horrela, bada, aktaren idazketa berria aurkeztu du onartua izan dadin eta eragozpenik dagoen galdetu du. Ez da eragozpenik egon. Beraz, ontzat jo da akta eta sailburuak gai-zerrendaren bigarren puntuari heldu dio.

2. Institutio bakoitzak datorren ekitaldirako hartu dituen konpromisoen aurkezpena eta “Ekintza positiborako konpromiso instituzionalak 2005erako” agiria onartzea, hala badagokio.

2005erako programazioari heldu baino lehen, Kultura sailburuak karpetan erantsi den dokumentua aipatu du, **II. Gazte Planaren tarteko ebaluazioa**, alegia.

Kultura sailburu Miren Azkaratek agiria erakutsi du eta, II Gazte Planaren ebaluazio metodologian tarteko ebaluazioa egin beharra ageri zela gogorarazi du. Ebaluazio horrek jarraipen sistema indartzea du helburu eta, plana amaitu aurretik, bere garapenean laguntzeko tresna izan nahi du.

Horrela, bada, tarteko ebaluazioan, SIIS kanpoko aholkularitza zerbitzuak bildutako datuen multzoa aztertu du ezarritako helburuak apurka-apurka lortzen ari diren ala ez jakiteko eta antzemandako desbideraketak aztertzeko. Era berean, aurtengo interbentzioa eta jarritako helburuen egokitasuna ere aztertzen da. Azkenik Planaren eraginkortasuna berrindartzeko proposamen zuzentzaileak aurkeztu dira.

Edozein kasutan ere, ebaluazio horren berehalako efektuetako bat 2005eko programazioa hobetzea izan da, batez ere aurreko urteetan egin ez diren edo programatu gabe utzi diren ekintzei dagokienez. Izan ere, Gazte Planaren idazkaritzak instituzio eta sail bakoitzari egin gabe zituen ekintzen zerrenda helarazi zien irailean eta urrian. Zerrendarekin batera galdetegi txiki bat ere igorri zitzaion. Bertan, alde batetik, ekintza horiek 2005erako programatzeko



asmorik izango zuten galdetzen zitzaien, eta, beste aldetik, ez programatzekotan, erabaki horren arrazoia adierazteko eskatu zitzaien. Galdetegi horren bitartez jasotako erantzun onarekin pozik agertu da Kultura sailburua. Horregatik, bertaratutakoak zoriondu ditu egin duten ahaleginagatik. Erantzun on hori **Ekintza positiboen konpromiso instituzionalak 2005erako** dokumentuaren zirriborroan —jarraian jorratu behar den agirian, hain zuzen ere— konproba daiteke.

Miren Azkaratek 2005eko programazio datuak aipatu ditu. Datu horiek Planaren arloen arabera bereizita ageri dira, instituzio bakoitzak aurreikusitako gastuarekin batera. Guztira 138.344.849,39 euroko zenbatekoa izango da, jasotako datuen arabera.

Euro kopurua arloko:

BALIOAK ETA GAZTE INDARKERIA	LANA ETA LANERATZEA	HEZKUNTZA ETA LANERAKO PRESTAKUNTZA	ETXEIBIZITZA	OSASUNA ETA GIZARTE EKINTZA	GAZTEEN AISIA ETA KULTURA
5.394.717,34	14.612.041,56	30.600.496	13.936.000	55.775.843,59	18.025.750,90

Euro kopurua instituzioko:

Eusko Jaurlaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia	Gasteizko Udala	Donostiako Udala
104.180.044,81	1.464.142,97	17.297.636,49	6.511.617,24	5.549.909,78	3.341.498,10

Lehendabiziko balorazioan Kultura sailburuak adierazi du bai aurrekontuak bai ekintza kopuruak gora egiten jarraitu dutela aurreko urteekin alderatuta, neurri batean lehentsuago aipaturiko *Tarteko ebaluazioari* esker.

Aurreko urteetan gertatu den bezala, aurten ere instituzio batzuek ez dituzte eskatutako datu guztiak bildu. Zentzu horretan, aipatzekoa da Donostiako Udalak gainontzekoen erritmorra egokitzeke egin duen ahalegina. Bestek beste, neurri batean bada ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak II Gazte Plana toki eremuan garatzeko sinatu zuten lankidetzaz hitzarmenaren bitartez helarazi zaion laguntzari esker lortu du hori.

Miren Azkaratek dio ziur dagoela programazio eta ebaluazio deszentralizatuan aurreratu ahala aurrerapausu handiagoak egingo direla eta instituzioen erritmoak bateratu egingo direla. Horri dagokionez, Planean udalak sartzea erabaki zenean agerikoa zen baliabideak urriak izango zirela eta hori konpondu beharko zela. Arazo hori dagoeneko konponduta dago.

Jaso beharreko hainbat datu falta denez gero, aparteko epea ireki da, 2005eko urtarrilaren 31ra arte. Epe horren barruan programazioan falta diren datuak



bidaliko zaizkio Gazte Planaren Idazkaritzari eta, horrela, ontzat hartuko da *Ekintza positiborako konpromiso instituzionalak 2005erako* dokumentua.

Balorazio orokor honi amaiera emateko, **datorren urtetik aurrera** Gazte Planaren ekintza positiboen zerrenda luzeari **erantsiko zaizkion jarduketa berritzaile batzuk** zehaztu dira. Hona hemen jarduketa horietako batzuk:

- SPRI-ren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren berregokitzapena. Zerbitzu hau gazte ekintzaileen arretara espezialduko da, dauden laguntza instituzionalen inguruan —gazte hauen enpresa-proiektu edo ekimenetara egokitzeko egon dauden laguntzen inguruan— modu pertsonalizatuan informatzeko.
- *Ekintzaileak* izeneko programa, SPRI-tik gazte ekintzaileei zuzendurikoa, enpresa ekimenak dituzten gazteentzat, hain zuzen.
- Gazte Justiziaren Zerbitzutik, hezkuntza arreta indartzea arau-hausle izan diren gazteetan. Adin txikikoen Epaileek hartu dituzten neurrien artean, gazte arau-hausle hauen benetako bergizarteratzea lortzeko asmotan.
- Herrizaingo Sailaren kolaborazioa Gazte Justiziaren Zerbitzuarekin gazte arau-hausleen hezkuntza-arreta sendotzeko.
- Elikadura asaldurak tratatzeko berariazko programa.
- Unitate berriak Osasun Sailaren haur eta gazteentzako ospitalizazio psikiatrikoan.
- Laguntzarik gabe atzerriko pertsona gazteak artatzeko laguntza-multzoa sortu eta zabaltzea. Immigrazio Zuzendaritzaren ekimena, atzeritar gazte hauek gizartera egokitzeko asmoarekin.
- Batzorde kudeatzaile bat sortzea, Euskal Kirol Planaren garapenaren bitartez gizaratean balioak ezartzeko.

Hauek dira, Kultura sailburuaren esanetan, berrikuntzetako batzuk. Edonola ere, balorazioa amaitzeko, gogorarazi du instituzioetatik egiten den gazte politika ez dela Gazte Planean jasota dauden ekintzetara mugatzen. Gazte Planak ekintza positiboen multzo bati ematen dio lehentasuna, baina bere helburua ez da gazte politikaren arloko esku-hartze guztiak agortzea.

Agiria ontzat eman eta gero, Miren Azkaratek gai-zerrendaren hirugarren gaiari heldu dio.

3. 2005erako ekintzen programazioaren eta II Gazte Planeko ekintzen arteko koordinazio eta uztardura mailari buruzko txostena onartzea, hala badagokio eta hobetzeko proposamenak aurkeztea.

Miren Azkaratek agiriaren azken atalean ipini du arreta, *2005erako ekintzen programazioaren eta II Gazte Planeko ekintzen arteko koordinazio eta uztardura mailari buruzko txostenaren* zirriborroan, alegia. Txosten horretako oharren arabera, programatutako ekintza guztiak bat datoz EAEko II Gazte



Planeko ekintzaren batekin, 2005erako programatu diren ekintzetako bakoitzari ezarri zaion kodeak adierazten duen bezala.

2005erako programatu diren ekintzen koordinazioa dela-eta, kontuan hartu behar da Zuzendaritza Batzorde honek 2003ko abenduaren 3an egindako bileran azertu zituen gaiak. Orduan bost neurri onartu ziren sailen arteko koordinazioa hobetzeko:

- mahai sektorialak sortzea;
- beste planekiko koordinazioa;
- programazio eta ebaluazio deszentralizatuak;
- gazteentzako baliabideen gida; eta
- informazio estatistikoa trukatzeko.

Neurri hauei dagokienez, Kultura sailburuak Gazte Planaren koordinazio mekanismoetan aurrerapausu esanguratsuak egon direla aintzatetsi du.

1. Lehendabizi, osatu diren mahai sektorialak gograrazi ditu. Mahai horietan, kasuan kasu, aurreko urteetan egin diren erantzukizun bateratuko ekintzen garapen-ereduak eguneratu eta aplikatu dira. Eta, gainera, Gazte Planeko hainbat ekintza azertu dira, bai kualitatiboki bai kuantitatiboki.

Horren aldetik, sortutako mahaien zerrenda eta horietan elkarlanean jardun duten zuzendaritzena eman du:

- Bake-hezkuntza (Giza Eskubideen Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza).
- Osasun-hezkuntza eta Drogamenpekotasunak (Osasun Publikoko Zuzendaritza, Droga Gaietako Zuzendaritza, Gazteria Zuzendaritza eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza).
- Gazteei buruzko ikerketak (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea eta Gazteria Zuzendaritza).
- Europako gaiak (Europako Gaietarako Zuzendaritza eta Gazteria Zuzendaritza).

Datu hauek ikusita, sailburuak uste du koordinazio maila nabarmen hobetu dela.

2. Bigarrenik, Gazte Planaren Idazkaritzak, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren bitartez, honako sail arteko eta erakunde arteko plan hauetan parte hartzen duela aipatu du:

- Ongizaterako Euskal Kontseilua.
- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.



- Drogamendekotasunari buruzko Bost Urteko Plana eta Drogamendekotasunen Aholku Batzordea.
- Estatistikako Euskal Plana.
- Ijito Herriaren Gizarte Partaidetza eta Sustapen Osorako Euskal Plana.
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Merkatu Arruntera Sartzeko Plana.
- Inmigratioari buruzko Euskal Plana.

3. Programazio eta ebaluazio deszentralizatuari dagokionez, Miren Azkaratek jakinarazi du gazteriarekin lotura duten politika sektorialak deskribatzen dituzten agiriak esku artean dituela Zuzendaritza Batzordeak estrainekoz. Bileraren unean SIIS enpresa ari zen agiri horiek aztertzen. Kasu batzuetan, dokumentu horiek erreferentzia baliagarria izan dira Emakume eta Gazteria Legebiltzar Batzordean agerraldia egin duten sailburuentzat.

Alderdi horretatik, Miren Azkaratek azpimarratu du benetan aitortu behar dela bai Eusko Jaurlaritzako sail guztiek bai Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek beren gazte-politikaren gaineko dokumentu programatikoa mamitzerakoan egin duten ahalegin txalogarria. Hain zuzen ere, dokumentu hori oso baliagarria izango da eskumen esparru bakoitzeko esku-hartzeetarako erreferentzia-esparru gisa.

Agiri horiek guztiek *Gazte planak eta programak programatzeko eta balioztatze*ko eskuliburu (EAEko Gazte Planaren eredu) izenekoan ezarritako jarraibideei men egiten diete. Eskuliburu hori Zuzendaritza Batzorde honek onartua dago eta sailburuak argitalpena bera aurkeztu nahi izan du. Bertaratutakoei karpitetan liburuaren ale bana dagoela ohartarazi die.

Sailburuaren esanetan, eskuliburuak gazte politikekin zuzenean edo zeharka lotutako langileak programazio eta ebaluaziorako irizpidez eta eredu homogeen eta adostuz hornitzeko premiari erantzuten dio. Azken buruan, II Gazte Planaren erronka gisa planteatu den programazio eta ebaluazio deszentralizatua errazteko xedea duen beste tresna bat da.

Gainera, Gazte Planaren ekintza bakoitzari egokitutako adierazleen multzo bat ere badu. Hori beste autonomia erkidego eta herrialdeetan jarraibide gisa erabiltzen ari diren tresna berritzailea da.

4.- Gazteentzako baliabide-gidari dagokionez, hau da, Gazte Planaren eta beste gazte politiken bestelako ekintzak gazteen artean ezagutzera emateari dagokionez, karpetan Eusko Gazteen Informazio eta



Dokumentazio Sareak egindako proposamen metodologikoa aurki daiteke. Horretarako bere tresna informatikoa bateragarri egiten du, ahaleginei etekin handiagoa ateratzeko. Proposamena beste erakunde batzuen galbahetik pasatzen ari da, balizko aldaketak jaso eta ontzat emateko. Bizkaiko Foru Aldundiak, esate baterako, datuak jasotzeko fitxa-eredu bat landu du, aplikazio informatikoan bertan oinarritutakoa, gero Aldundiko sail guztietara bidaliko duena.

Proposamena ontzat eman eta gero, instituzio bakoitzak bere esparruari dagokion informazioa gainbegiratu eta osatzeari ekingo dio.

5.- Informazio estatistikoa trukitzea dela-eta, gai-zerrendaren hurrengo puntuan landuko den bezala, Gazteen Euskal Behatokiak EUSTATi eta Herrizaingo Sailari eta Osasun Sailari eskatu zitzaizkien datuak eskuratu ditu.

Ildo horri jarraituz, Miren Azkaratek arestian aipatu den II Gazte Planaren tarteko ebaluazioa ere egin dela gogorarazi du.

Horrela, bada, 2003ko abenduan adostutako bost puntuak jorratu dira eta II Gazte Planaren indarraldiak iraun bitartean lantzen jarraituko dira.

Gainera, koordinazioari buruzko atal hau amaitu aurretik, Miren Azkaratek Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek EAEko II Gazte Plana ezarri eta garatzeko sinatu dituzten lankidetzak hitzarmenak aipatu ditu.

Sailburuak jakitera eman du Araban, 2004an, ez dela indarrean dagoen hitzarmenaren eranskina sinatu, eta, hortaz, ez dela diru-ekarpen parekiderik finkatu. Horren ordez, alde biek adostu ondoren, Arabako Foru Aldundiak zuzenean ordainduko ditu gazteriaren inguruko ekintzak egiteko udalek eta tokiko beste erakundeek egiten dituzten dirulaguntza-eskabideak; eta Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, Arabari dagozkion 180.000 euroak erabiliz, bertako koadrilen eskakizunei erantzungo die, koadrila bakoitzean, batetik, gazteriaren inguruko zeharkako politikako plan integrala prestatu eta ezartzeko eta, bestetik, gazte-ekipamenduen sarea indartzeko.

Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, hitzarmen berri bat sinatu da kudeaketa hobetzeko. Kasu bietan, erdibana ordaindu dira 2004rako erabilgarri zeuden gehieneko diru-kopuruak, eta udalen eskakizunei erantzun zaie, bai tokiko planak abian jartzeko (udalerrri mailakoak zein mankomunitate mailakoak) bai gazte-ekipamenduen sarea indartzeko.

Jarraian Miren Azkaratek gazte politika integralen sustapenean inplikaturik dauden udalerrien zerrenda luzea erakusteari ekin dio.

Araba:

VITORIA-GASTEIZ: Gazte Plana lantzeko fasean dago. Horretarako finantziazioa jaso zuen 2003an, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenari esker. Gainera, gainontzeko SEI KOADRILAK ere Gazte Plana lantzeko fasean daude, Eusko Jaurlaritzaren finantziazioaren kargura, gazte ekipamenduetarako laguntzak barne, kasu honetan, zazpi koadriletako udalei emanak.

Bizkaia:

Gazte planak prestatu edo garatzea (48 udalerri eta mankomunitate bat):
BERMEO, GETXO, GALDAKAO, BARAKALDO, BILBAO, IGORRE, OTXANDIO, ZEBERIO, UBIDEA, ARANTZAZU, BEDIA, AREATZA, DIMA, OROZKO, LEMOA, ARTEA, ZEANURI, BALMASEDA, ZALLA, PORTUGALETE, KARRANTZA, BASAURI, TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA, MUNGIA, ATXONDO, ELORRIO, IURRETA, ARTZENTALES, GALDAMES, TURTZIOZ, URDUÑA, LEIOA, GORDEXOLA, DURANGO, GORLIZ, MUSKIZ, LANESTOSA, ZALDIBAR, BERRIZ, GARAI, LOIU, ALONSOTEGI, SOPELANA, ARRIGORRIAGA, GUEÑES, IZURTZA, MAÑARIA, MALLABIA eta AMOREBIETA-ETXANO.

Ekipamenduak:

ARRIGORRIAGA, DIMA, BASAURI, ABANTO-ZIERBENA, MARKINA, AMOREBIETA-ETXANO, BALMASEDA, DERIO, GIZABURUAGA, UBIDEA, SONDIKA, ARANTZAZU, AREATZA, MUSKIZ, BILBAO, SOPELANA, BERMEO, IGORRE eta GATIKA.

Gipuzkoa

Plana lantzeko fasean dauden edo gazteei zuzendutako egiturak sendotu dituzten udalerriak (13 udalerri):

TOLOSA, LAZKAO, ELGOIBAR, ERREZIL, PASAIA, ZIZURKIL, URNIETA, ANTZUOLA, DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, ARETXABALETA, ESKORIATZA, ZUMARRAGA eta IRUN.

Ekipamenduak:

IRUN, ARRASATE, BERGARA, OÑATI, DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, AZPEITIA, MENDARO, AZKOITIA, LEGAZPI, IBARRA, URRETXU, IKAZTEGIETA, ERRETERIA, BERASTEGI eta IRURA.

Gainera, Kultura sailburuak jakinarazi du Bizkaiko Lurralde Historikoan EAE-ko II Gazte Planari buruzko komunikazio kanpaina burutuko dela bai irratian bai telebistan. Komunikazio kanpainarekin batera sozializazio kanpaina ere



burutuko da, toki eremuko gazte plana onartuta duten edo lantzen ari diren udalerrietako biztanle gazteei triptiko bat eta alkatearen gutun bat igorrita. Hori da Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmen horren Bitariko Batzordeari egindako proposamena. Miren Azkaratek azaldu du ekimen hori sozializazioaren ildoan sakontzen jarraitzeko beste modu bat dela, gazteei Gazte Planari buruzko informazioa ematea, alegia. Horrela, gazteek gero eta gehiago dakite gazte politiken arloan burutzen ari diren jarduketan inguruan.

Puntu horren azalpena amaitu eta gero, Kultura sailburuak norbaitek zerbait esan nahi duen galdetu du. Inork ez du parte hartu nahi izan eta, horrela, ontzat hartu da *2005erako ekintzen programazioaren eta II Gazte Planeko ekintzen arteko koordinazio eta uztardura mailari buruzko txostena*.

Miren Azkaratek gai-zerrendaren laugarren puntuari heldu dio.

4.- Gazteen Euskal Behatokiaren 2005eko jarduketa planaren aurkezpena.

Kultura sailburuak gogora ekarri du, bereziki Zuzendaritza Batzordetik inauguraziora joan ezin izan zutenak aintzat hartuta, Gazteen Euskal Behatokiak bere Bilboko **egoitza** inauguratu zuela iragan den azaroaren 25ean. Lokala Uriortu kalearen 11. zenbakian kokaturik dago. Bertan bederatzita pertsonak egiten dute lan.

Behatokiaren **Dokumentazio Zentroa** bertan kokaturik dago. Gaur egun 2.700 ale inguru dauzka, eta bere funtsak zabalduz joango dira. Lokala erabilera publikokoa da eta liburuak kontsultatzeko eremua eta mailegatzeko zerbitzua du. Laster katalogoa Behatokiaren webgunetik kontsultatu ahal izango da.

Behatokiaren Dokumentazio Zentroa Euskadiko Liburutegien Bilgunearen barruan dago, Kulturaren Euskal Planaren baitan sortutako Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren bitartez.

Inaugurazioan *Euskadiko gazteak 2004* ikerketa ere aurkeztu zen, Gazteen Euskal Behatokiak Euskal Autonomia Erkidegoko 15 eta 29 urte bitarteko gazteei egindako iritzien zundaketa. Bertan gazteen inguruko gai eta arazo nagusienak lantzen dira. Argitalpen horren ale bana dago bertaratutakoaren karpitetan.

2005ean burutu beharreko lanak

Adierazle nagusiak landu ondoren, hainbat datu eskatu zitzaizkien hainbat erakunderi —Eustati, Herrizaingo Sailari, Osasun Sailari eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari—. Datu horiek guztiak Gazteen Euskal Behatokiari eman zaizkio, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eskatutakoak izan ezik.



Adierazleak udalerriz udalerriz eta lurraldez lurralde banatu dira ahal izan den guztietan eta Behatokiaren webgunean sartu dira bertatik kontsultatu daitezten.

Era berean, adierazleen azterketatik abiatuta, gazteei dagozkien adierazle nagusiak bilduko dituen liburu bat argitaratuko da 2005ean, gazteen egoeraren ikuspegi orokor kuantitatiboa ezagutzera emateko.

Gainera, Gazteen Euskal Behatokia 2004-2005 epealdirako hainbat **ikerketa** prestatzen ari da. Horietako lau **argitaratuta** daude dagoeneko: *Gazteen argazkiak 7, Euskadiko gazteak 2004, Gazte planak eta programak programatzeko eta balioztatze eskuliburua* —bilera honetan aurkeztua— eta *Gazteak eta informazioaren teknologiak Nazio Batuen esparruan*.

Amaituta eta argitaratzeko fasean dauden beste ikerketa batzuk ere badaude: *Gazteen aukerak etxebizitza aukeratzeko, Euskadi Europar Batasunaren esparruan* —urte amaieran argitaratuko dena—; *Euskal gazte lankideen bizi ibilbideak* —2005eko apirilean plazaratzea aurreikusten dena— eta, azkenik, *Hezkuntza ez formalean bizikidetzatza eta bakearen aldeko heziketari buruzko liburu zuria*.

Gainera, zenbait ikerketa **prestakuntza fasean** daude: *Euskadiko gazteengan azaleratzen ari diren jokoerak* (EHUren eskutik) eta *Euskadiko gazteen panoramika*.

2005ean gazteentzako askotariko zerbitzuen —hala nola gazte informazio zerbitzuen— ezagutza eta erabilerari buruzko ikerketak egingo dira.

Lan horien zabalkundeari dagokionez, Gazteen Euskal Behatokia bere **webguneaz** baliatzen da. Bertan Behatokiak prestatutako argitalpen guztiak kontsulta daitezke, bai eta hainbat adierazle estatistiko ere. Era berean, hainbat lan —dokumentuen bilaketak, liburuen edo informazio zehatzen eskariak eta gazteen arloko profesional eta agenteen partaidetza— erraztuko duten aplikazio informatikoak ere garatuko dira.

Azkenik, Kultura sailburuak gazte teknikari eta eragileentzako **prestakuntza zikloaren** berri eman du. Zikloa Parte Hartzeko Heziketa Ikastaroarekin hasi da, Nazio Batuen Komunitate Garapen eta Partaidetza programen aholkulari René Lidia Jablkowski argentinarrak emana.

5.- Galde-eskeak.

Gazteen Euskal Behatokiak 2005erako aurreikusi dituen ekintzak azaldu eta gero, Kultura sailburuak galderarik edo eskaerarik dagoen edo azalpen sakonagorik egin behar den galdetu du. Ez da parte-hartzerik egon eta, hortaz,



Miren Azkaratek Xabier Sánchez idazkariari hitza luzatu dio gai-zerrendaren azkeneko puntuari hel dakion. Beraz, Xabier Sánchezek hitza hartu du eta hartutako akordioak irakurtzeari eta baliozkotzeari ekin dio.

6.- Bileran hartutako akordioak irakurri eta baliozkotzea.

1.- II Gazte Planaren tarteko ebaluazioa berrikustea eta ontzat ematea, 2005eko urtarrilaren 31 baino lehen.

2.- 2005erako ekintzen programazioa onartzea, eta 2005eko urtarrilaren 31n "Ekintza positiboko konpromiso instituzionalak 2005erako" dokumentuaren datuak ixtea egun hori baino lehen helaraziko diren ekarpenekin.

3.- 2005eko ekintzen programazioak II Gazte Planaren ekintzekin duen koordinazio eta uztardura mailari buruzko txostena onartzea.

4.- Dokumentu programatikoak berrikustea edo osatzea, SIIS enpresaren orientabideak baliatuz.

5.- Eusko Gazteen Informazio eta Dokumentazio Sareak egindako Gazteentzako baliabide-gidaren proposamena 2005eko urtarrilaren 31 baino lehen ontzat ematea, egun horretatik aurrera instituzio bakoitzari dagozkion datuak jasotzeko eta aztertzeko.

6.- Gazteen Euskal Behatokiak jasotzeko dituen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren datuak lehenbailehen bidaltzea.

Akordioak irakurri eta gero, Xabier Sánchezek bertaratutakoei zerbait erantsi nahi duten galdetu die. Inork oharrik egin ez duela eta akordioak aho batez hartu direla ikusita, guztien lankidetzeta eta presentzia eskertu du.

Miren Azkaratek abagune hau urte berria zoriontzeko aprobetxatu du eta ordura arte egindako lana eskertu nahi izan du. Hurrengo urtean, Gabonetako oporrak pasatu eta gero, lanari gogotsu ekitera animatu ditu bertaratuak.